

Agirre Urreta (Agarre)



MENDIZABAL JAUREGI familia

AGARRE Urreta auzoko baserria da. Aitona hamabost urtez egon omen zen udaletxean, eta badirudi *Agarre* inguruak auzoa osatzen zuela eta auzo moduan ordezkaturia zegoela Udalean.

Inguruko baso eta zelaien izenen artean dauzkagu *Izpitarte*, *Baratzondo*, *Luarri*, *Txatalota*, *Barrutialde*, *Aiztueta*, *Mermeo*.

Aiztueta parajetik astoarekin eramaten omen zuten Fabrika Handira mineralen bat, eta dirudinez, inguru hori ondo zulatuta dago ia-ia *Ernaitzaraino*, eta inguruko jendeak minetara joatea esaten dio meatze horietan ibiltzeari.

Oinez herriko plazatik ordu erdira dago eta, Ordiziara lanera, ordu laurden edo hogeiren bat minutu behar zuten, bizikletaz. Serapio Mujikak dioenagatik, 1865ean egin zen Ordiziatik Zaldibira bitarteko bidea, baina herrirako bidetik etxerainoko metroak 1952an egiteko nahiko lan izan omen zuten. Azkenean aitona soroaren erditik pasatzen utzi omen zien eta hala egin omen zuten bidea.

Etxejabe dira *Agarrekoak* 1911z geroztik. Aitona zenak, Joxe Antonio Mendizabalek, erosi omen zien Lazkaoko monjei, *Rekoletas Salesianas* ordenakoei, orduko 4.750 pezeta ordainduta. Gero, 1916. urtean berritu eta puska bat erantsi zioten etxeari.

Kontsuelo Jauregi Bedaioko *Larrañeta* baserritik etorrira ezkondu zen *Agarrera*, Bittorio Mendizabalekin. *Saturdin* ezkondu, Zaldibiko *Estantko* tabernan egin otordua eta Madrilera joan ziren ezkontza bidaian. Madrilen beste bikote zaldibitar batekin

elkartu ziren, *Ausoegiko* Joxepa eta Joxe Luixekin (*Antxusi* esaten zioten). Eta hala, elkarrekin egin zituzten egun batzuk.

Ezkondu zirenean, etxean bizi ziren gurasoak, aitona eta izeba. Bi seme-alaba izan zituzten: Joxe eta Maria Jexux.

Ezkondu arte artzain ibili zen Bittorio, eta gero baserrian, baina bere anaia Pedrok artzain jarraitu zuen. Baserrian hamabi behi buru zituzten, eta esnea esnezaleari saltzen zioten. Baratzea ere egiten zuten etxerako. Garia, artoa eta babarruna ereiten zituzten. Ordiziako feriara ere joaten ziren, untxia, babarruna eta arrautzak saltzera. Ez dira fabrika lan egindakoak. Ezkondu baserrian bizitzen jarri eta urtebetera artaldea erosi omen zion zaldibitar bati, baina bi lanak ezin eraman eta berriz saldu egin omen zuen.

Baserriaren arrastoa idatzietan

Agirre etxe bat baino gehiago dira auzo horretan, eta Urretak ere bi ageri dira. Hirurak gutxienez, 1783an dokumentatua Aralar eta Eniriko sailak medio sortutako auzian, Joseph Angel de Agirianori emandako boterea emateko egindako bileran ordezkaturien artean. Agirre Urretatik hiru ordezkari agertu ziren, bertan hiru etxebizitza izan zitezkeen seinale.

Eskolara joana zen Joxe, baina ez asko. Bazkaria etxetik eramaten omen zuen eta jan *Arretxen* jaten omen zuen, Antonio eta Pontzioren etxean. Hauen ama Joxepak berotzen omen zien jana. Otordu gozo-gozoak izaten omen ziren.

Hurrengo belaunaldian, 1997an, Kristina Azpiroz Nafarroako Jauntsarats herrikoa, *Asuncion* etxeko alaba, ezkondu zen *Agarrera* bertako seme Joxerekin. Otordua Lasarteko *Dana-ona* jatetxean egin eta gero Kubara joan ziren ezkontza bidaiari. Alaba bat izan dute: Ainitze.

Informazio emaila: Joxe Mendizabal



Joan Jauregi, Joxepa (amona), Kotsuelo (ama), Bittorio (aita) eta Joxe Antonio (aitona).



Kotsuelo Jauregi eta Bittorio Mendizabal (aita-amak).



Kotsuelo eta Bittorio, Maria Jexux eta Joxe seme-alabekin.



Joxe, Ainitze (biloba), Kotsuelo eta Maria Jexux.